



LIBURUA

# Dendaostetik erakusleihora

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**K**ronika literario gisa sailkatu du Alberdik liburua. Ez naiz nor bakoitzak erditu duena nola izendatu nahi duen zalantzan jartzeko. Eta hala ere, autobiografia kolektibo baten aurrean ere bagaudela esatera ausartuko naiz. Sailkatzeko hainbeste hitz erabili beharrak, ordea, ematen digu pista: liburu sailkaezina da *Dendaostekoak*.

Gaur egun jasotako istorioa da: Pিত্তintxu denda zabaldu zutenetik 40 urte baino gehiago igaro direnean eta protagonistak erretiroa hartzetik gertu daudenean egindakoa. Atzera begirako errepassoa egiten dute Izaskunek eta Marijok: senideen arteko harremanetatik hasi, herriko aldetetatik igaro eta mundu mailako debate politikoetaraino mugitzen dira azkar batean. Dendatik mugitu ere egin gabe.

Denda da beraien oroitzapen gehienak aglutinatzen dituen espazioa. Bertan egiten dute lan egunean zortzi, hamar ordutz. Bertan ikusten dute herriko jendea. Bertan elkartu lagun minak eta mendi taldeko emakumeak. Bertan hitz egin literaturaz, musikaz, arteaz eta politikaz. Dendaren ordutegiaren arabera antolatzen dute beraien aisialdia ere. Eta beti aurkitu kirola egiteko zirrikitu-

rik. Ardo pare bat hartzeko momenturik. Denden elkarteko bileretara joatekorik. Mozorrotzeko umorerik.

Denda hau egiteko, saltzeko, harremantzeko modu baten marka da: gertutasunean, konfiantzan eta bezeroaren ezagutzan eraikia. Galtzear dagoen komertzio txiki bat, besteren artean.

Elkarrizketa biziak dira Izas eta Marijorenak. Batak bestearen kontakizuna elikatzen du, oroitu ez duen detailaz hornitu bestearen esana. Hasieran zaila da beraien ahotsak bereizten, ez baitago horretan lagunduko digun puntuazio markarik. Hala ere, pertsonaia bakoitzaren ahotsa eta nortasuna bereizten hasiko gara kontakizunean sakondu ahala.



DANI BLANCO

## DENDAOSTEKOAK UXUE ALBERDI

SUSA, 2020

Elkar oso ondo ezagutu eta bizi duten bi pertsonaiaren arteko elkarrizketak dira, dinamikoak, konplizeak. Askotan mimetizatuak. Uxue Alberdik ondu eta josi egin ditu. Estilo literarioa eman, eta aldi berean naturaltasuna gordetzea lortu. Lan bikaina iruditu zait.

Denda elkarrekin daramaten bi ahizparen autobiografia edo kronika irakurriko nuelakoan bizitza -letra larriz esanda- elkarrekin eraman eta egiten duten ahizpen autobiografia edo kronika irakurri dut. Sakonean hunkitu nau beraien aske izateko gogoak; eta malkoren bat leherrarazi dit testuak eta Izas eta Marijok duten bizitasunak, bizipozak, ausardiak eta indarrak. ●

Herriz herrira  
**LARRABETZU**

**LARRABETZUN,  
EUSKARAZ BIZI**

[www.larrabetzu.eus](http://www.larrabetzu.eus) / [udala@larrabetzu.eus](mailto:udala@larrabetzu.eus)  
Facebook.com/larrabetzuko Udala  
Twitter.com/larrabetzuudala  
Instagram.com/Larrabetzuko\_udala



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

